

Kale Barria (I)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Aurreko zortzi aldizkaritan Kale Zaharrari eta Plaza Nagusiari buruzko hainbat argibide eta albiste azaldu ondoren, hurrengoetan **Kale Barriko** kontu eta jakingarri batzuei helduko diegu. Oraingoan ere **eremu hori zabal antzean arakatuko dugu**, hau da, gaur egungo Kale Barriaren eta albo-kaleen sorrera nahiz hedadura batera samar aztertuz. Izan ere, Kale Barriak, Atzeko kaleak eta inguruko beste batzuek garapen historiko bertsua izan baitute.

KALEAREN BILAKAERA

Itxuraz kontrako izena dauka kale honek. Ez da inolaz ere berria, **Erdi Aroaren** amaierara orduko, gutxienez, eremu garrantzitsuarekin agertzen zaigulako hemengo dokumentu zaharretan: adibidez, 1477ko herri-ordenantzetan garbi asko adierazten da **Oñatiko kale-gunea Zubiaurretik** (egungo Iturritxo plaza aldetik) **Olaiturriraino** (oraingo agustinoen eliza ondora) **heltzen zela**. Hori bai, erdi inguruan Antzuelas-Arrano errekek, San Migel eliza baino goratxoago, egiten zuen eten zabalarekin. Beraz, ondo berezitatiko bi auzok egituratzen zuten ordurako hirigune oñatiarra: Kale Zaharrak eta Kale Barriak, batez ere. Artean ez zegoen askoz geroago gauzatuko zen plaza nagusirik.

• 1488ko sutea

Dena den, XV. mendearen hondarreko **Kale Barri hura zeharo itxuraldatu zitzaigun 1488ko sute ikaragarriaren eraginez**. Garai hartako etxeak, batik bat, zurez egindakoak izaten ziren; belar, lasto eta liho asko gordetzen zuten; eta gainera sutegi ugari zeukaten etxepeetan, herriko *ultzegin* eta errementariak euren lanetarako zerabiltzatenak. Halako baldintzekin sua azkar asko zabalduko zen, haizearen laguntzaz, ziur aski. **Kale Barria eta honen osteko aldea (Atzeko kalea) ez ezik, orduko Santa Marina auzoa ere erabat kiskalduta geratu ziren**. Gorago aipatu dugun Antzuelas errekek eragotziko zion suari Kale Zaharre-
ra iristea.

• Hondamendia konpontzeko lehen urratsak

Hartara, Kale Barria *berriagoa* moldatzeari ekin zioten herritarrek 1500 inguruan. **Etxeak berreraikitzeko, lehen baino harri gehiago erabili zuten, eta sutegi gehienak Ubao errekez bestaldera aldatu**; orduan sortu ziren, hain zuzen ere, Zubibarri, Lekunbarri, Auzabarri eta beste errebal batzuk. Ikus dezakezuenenez, auzune hauen lehenengo bertsioa ere ez dugu atzo goizekoa.

Hala ere, esan beharra dago zuraz erruz baliatu zirela hondatutako eraikinak berriro jasotzeko orduan. Horretarako, **batzar**



Kale Barria 1960ko hamarkada aldera.

irekia egin zuen kontzejuak Oñatiko San Migel plazan (enparantza zaharrean, alegia), **1489ko otsailaren 22an**, hemengo herri-baso desberdinetako hariztietatik materiala banatzeko arauak finkatzeko. Hori dela eta, **kalerik kale** eta auzorik auzo, **familiaburu denen zerrenda zehatza idatzi zuten**, larrialdi nabarmen hartan bakoitzak zenbateko diru-ekarpena egin behar zuen garbi adieraziz. **Hau dugu oñatiarron lehenbiziko errolda**, era askotako datuak eskaintzen dizkiguna; aberatsa, benetan.

• Kalearen luzapenak

Ez zen soilik erretako kale-gunea berreraiki. **Karrikak luzatzeko aukera ere aprobetxatu zuten**. Ordura arteko Kale Barria eta Atzeko kalea egungo Naparreneko kantoian eta Iturritxon bukatzen baziren, **XVI. gizalditik aurrera sail berriak irabazi zituzten** batak zein besteak. Kale Barriko zatia **Kalegoiena** legez ezagutu zen XVI.etik XIX.eraingo; Atzeko kalearen luzapenari, Iturritxotik Portalekurainoko tarteari, ez zitzaion izen berezirik jarri berandura arte, aurrerago argituko den bezala.

Kalegoiena zeritzana Naparreneko kantoian horretatik oraingo **Etxaluzeraino** jasotako etxe-ileak osatzen zuten. Geroago beste luzapen bat ere izan zuen kaleak, Etxaluzetik Murgizubieta-
ra doana, San Martingo zubiraino, alegia: **Auzotxo** gisa zen ezaguna luzaroan eta 1970ko hamarraldian Martzelino Zelaia izen ofiziala bereganatu zuen, Etxaluzeko lorategi eta baratzean poligono berria eraiki zenean.



Kale Barria eta inguruak 1848an.

ZUZENKETA ETA GEHIKUNTZA BATZUK

Orain hurrengo zenbakian eta aurrekoetan azaldutako datu batzuk zuzendu edota zehaztu beharrean gaude.

- Kale-izenen aldaketa-datari buruz honako hau argitu behar dugu: Gipuzkoako Aldunditik 1896an agindu bat bidali zitzaizen udalei herriko kaleak eta plazak euskaraz nahiz erdaraz izenda zitzaten. Abagune hori baliatuz, kale batzuen izena bera ere aldatzea erabaki zuen kontzejuak.

Adibidez, orain arte ikusitakoan artean ondorengoek jasan zituzten mudantzak: **Kale Zaharrari** orduantxe hil berria zen **Juan Carlos Alzaa** alkate ohiaren izena ezarri zitzaion; **Plaza Barria Fuegoen Plaza** izan zen harrezkero; eta **Kale Barria**, berriz, **Rodrigo Mercado Zuazola** apezpiku ospetsuari eskaini zioten. Erabaki horiek 1896ko abenduaren 24ko eta 1897ko urtarrilaren 15eko udal bileretan hartu ziren; eta ez 1905ean inoiz idatzi dugun bezala. Aurrerago ikusiko da aldaketok noiz arte iraun zuten.

- Plazako iturrian 1882an jarri zen Frantzisko Antonio Elortza jeneral araoztarraren bustoa ez zen Parisen moldatu, bes-

te iturrietako burdinazko irudiak bezala. Militarren familiak herriari egindako oparia izan zen eta beste hainbat lekutan (Asturiasko Trubian, Segoviako alkazarrean edo Araotzeko Agerre base-rrian) dauden pertsonaia beraren bustoen kopia da.

- Esan, gainera, plaza inguruan kokatu izan direla beste denda, elkarte eta kontsulta batzuk ere. Esaterako, Txurrukaneko aldean, **Karlsten zirkulua** XX. mendearen hasieran, eta **Euskadiko Ezker-rra talde politikoaren lokala** trantsizioaren ondoren; beste arkupean gainean, berriz, **EAJren batzokia**, hau ere 1980 ingurutik aurrera. **Acción Católica Española** elizaren erakundeak ere Txurrukaneko gainean izan zituen luzaroan bere egoitzak: gizakumeena San Juan kale aldera, eta emakumeena Zazpibidetarantz; **Caritas**-ekoek ere han aurkitu zuten euren txokoa.

- Horietaz gain bestelako denda eta bulegoak ere egon dira edota daude plaza aldean: besteak beste, **Lertxundi burdindegia**; **Asun Arzuagaren artile-denda**; **Ignazio Berroetaren liburu-denda**; edota **Javi Perez eta Rafael Kortabarriaren lege- eta finantza-zerbitzuak**. Beste aldeko arkupeetan **Luis Arrazola okulistik** eta **Luis Zulueta otorrinoak**, oñatiarrak biak, eduki zituzten euren kontsultak gure haurtzaro eta gaztaroan.

TSURRUST
 TABERNA • JATETXEA
 Bidebarrieta 6
 Tel.: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



Kale Barria (II)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Orain hurrengoan esaten genuen bezala, Foruen plaza-tik gorako kale horien xehetasunak azalduz joango gara. Hau da, **Kale Barria, Atzeko kale eta euren luzapenei buruzkoak**. Gaurkoan, hasteko, eremu horretan geratu zaizkigun **eraikin interesgarri batzuk** nabarmenduko ditugu. Hainbeste mendetan zehar aldaketa ugari izan ditu kale-arte horrek, jakina.

ETXE ETA ERAIKIN AZPIMARRAGARRI BATZUK

Hemen ere, Kale Zaharrean eta plaza nagusian lez, berrikuntza eta ordezkapen asko gauzatu da denboraren joanean. Kontuan izanik, gainera, 1488ko sute beldurgarriak inguru gehiena kiskaldu eta hondatu zuela. Hala ere, **badira lehenengo itxurari eutsi dioten lagin aipagarriak**. Batzuk beste batzuk baino gehiago. Denak aztertzeke lekurik ez dugunez, hona gure aukeratxoak:

Lazarraga jauregia

Udaletxearen aldamenean eta Atzeko kalearen hasieran kokatzen den eraikin-multzo hau eta bere ingurua ditugu, dudarik gabe, Oñatiko berezitasunik azpimarragarrienetakoak. Erdian agiri den **dorre garaia Gebaratarrek** jasoarazi zuten Erdi Aroan, eta XV. mendean **saldu zioten Lazarragarren leinuari**. Hauek **zati berriak** erantsi zizkieten jatorrizko dorreari XVI. eta XVIII. gizaldien bitartean: plaza aldera begira dagoen jauregia fase desberdinetan, eta kalean gora Labekoa deitzen dena eta administratzailearen etxeak.

Kanpotik nahiz barrutik oso ondo mantendu den eraikina da; **altxor handiak gordetzen ditu, haltzari, margolan, irudi eta tapiz bikainekin**; familiaren artxibo oso aberatsa dauka eta liburu zaharrez hornitutako biblioteca garrantzitsua. Ezin ahaztu kanpoaldean **dorreko esgrafiatuak**, hainbat ate eta balkoi aipagarri, eta azken urteotan publiko bihurtu den lorategi ederra. Jauregi hau gaur egun Sotomayorreko dukearen (Carlos Martínez de Irujo) jabegoa da, Lazarragarren oinordekoena, alegia.

Elorriaga etxea

Kontzejuaren ostean eta Kale Barria eta Atzeko kalearen artean aurkitzen da. XVII-XVIII. mendeetan berreraikitako etxetzar honek **hiru fatxada dotore** ditu kale bietara eta kantoi aldera; burdinazko balkoi **zabal ugari** lehenengo pisuan, bi oso luzeak ertzetan eta beste sei laburragoak. Sarreran harlanduzko atetzarraren gainean **Elorriaga** familiaren armarri barrokoa agiri da. Errekarriz osatutako **behebarrua**, ataria, eta eskailera-burua ere azpimarragarriak dira; baita lehenengo pisuko hainbat gela eta altzari ere.



Azkarraga etxearen atzekaldea ezkerrean, eta *Don Pedruena* eskumara, 1877ko margolan batean

Elorriagarren eta hauen oinordekoen ondoren, **Leturiatarrak** egin ziren etxearen jabe XIX. mendearen amaieran. Abizen horretako Lukas dendariaren bitartez aldatuko zitzaion izena eraikinari, hots, **Lukasena**. Leturia-Arazola familiakoak bizi dira hor azken belaunalditan. XX. mendean, aurrerago zehaztuko denez, era askotako komertzio eta bulegoak egon dira etxepe horretako hiru aldeetan.

Azkarraga etxea

Kanpoko aldetik eutsi dio neurri batean Atzeko kaleko 6an dagoen etxe handi, karratu horrek garai bateko itxurari. Barrutik oso gutxi, 1949ko apirilean izandako suteak kalte izugarriak erakarri zizkiolako. Garai hartan **Larrañako Obiaga** baserriko **Madina** familiakoek zume-lantegia zeukatzen eraikin horretan. Horregatik **Obixaganekua** moduan ere ezagutu izan da.

Kale aldera ematen duen fatxada nagusiko ateak arku zorrotza du, harlandu dotorez moldatua; ateburuko **giltzarrian balkoi batek moztutako inskripzioa** ageri da, latinez idatzia; gora-goko **Azkarraga deituraren armarria** Uribarri auzoan izen bereko baserrian dagoena bezalakoa da; eta goienean ikus daiteke mundua irudikatzen duen **bola bat gurutze patriarkalarekin**; lehenago ateburuan egon zitekeena, beharbada. Azkarraga abizeneko hiru alkate egon ziren Oñatin hamar bat aldiz 1744 eta 1840 bitartean.

Don Pedruena etxea

Goraxeago bi kaletara eta kantoi batera ematen duen jauregi itxurako eraikin bikain honek okupatzen duen orubean bi etxe zeuden 1699. urtera arte. **Bernardo Soraluze kapitainak** biak bereganatu, bota eta berria eraikitzea erabaki zuen. Hartarako **Lukas Longa** Mendaroko **arkitekto famatuarengana** jo zuen. Orduan jasotakoak hiru fatxada zituen, egungo lorategian beste etxe bat zegoen eta.

Hasierako ugazaben ondoren, XIX.aren erdialderako **Pedro Larrañaga Urtaza** agertzen zaigu jabe gisa. Hortik datorkio, nonbait, **Don Pedruena** izena. Honen ondorengoek aldameneko etxea erosi, eraitsi eta lorategi pribatua atondu zuten kale bien artean 1895ean.

Oraingo lau fatxadetatik hiru harearizko harlandu apainaz eginak ageri zaizkigu. Etxeak bi armari barroko handi ditu er-tzetan, Kirriñeneko kantoira begira; eta beste bat, berriagoa, lora-tegi aldera. Etxea luzaroan hutsik eta hondatu samartuta egon ondoren, duela urte gutxi zeharo eraberritu zen barrutik, kan-pokaldea berdintsu mantenduz. Etxebizitzak egin dituzte pisu-tan eta arropa-denda jarri dute beheko solairuan.

Zubia etxea

Aurrekoa baino goratxoago, Atzeko kaleko 8an, aurkitzen den etxe honek ere beste izen bat zeukan XIX. gizaldian. **Josefa Solano** andrearena zen 1867. eta 1871. urteetan. Josefa, Pedro Manuel Solano Miguel eta Maria Katalina Billar Unanue senar-emazteen alaba zen eta amarengandik zetorkion ondare hori. Dena den, 1892ra orduko etxea **Frantzisko Ugarte Ugarte** jaunarena zen. Honek, urte hartan, etxeari solairu bat jasotzeko asmoa azaldu zion udalari, horretarako plano aurkeztuz; apirilaren 9an eman zitzaion baimena.


Francisco Ugarteren alaba, Sabina Zirila Ugarte Igartua, **Jose Julian Zubia Elortondorekin** ezkondu zen. Jatorri horretakoak dira guk ezagutu ditugun Zubiatarak, XX. mendeko hainbat hamarkadetan, Atzeko kaleko festen antolamenduan ospetsuak izan zirenak. Etxearen gaur egungo izena ere, **Zubiarena**, familia horren bitartez dator, jakina.

Bitxikeria da, baina eraikin honek baratze aldeko bi balkoi-tan, Araotzeko parrokiaren kanpandorreko leiho batean falta den karelaren zatiak dauzka baranda gisa. Frantzisko Ugarteren aita Jose Agustin Ugarte Ugarte hargina zen, eta hark lortutako elementuak izan daitezke, agian. Etxeak ez du aldaketarik eduki aspaldiko urteetan.

Gerriko-Urreiztieta etxea

Gerriko oso deitura goierritara da, Segura eta inguru horietakoa. Noiz etorri ote ziren Oñatira? Ba, **Juan Frantzisko Gerriko** Urkiola gabiriarra 1790ean Maria Joakina Nanclares Arizmendi oñatiarrarekin ezkondu zen. Orduan erosiko zuen etxe hau, eta 1818an urtean obrak egiten ari zen. J. F. Gerriko jaun hau **notarioa zen eta zinegotzia eta udal-idazkari karguak** ere eduki zituen. Etxearen aldameneko kantoia 1858. urtean zuzendu, zabaldu eta eraberritu zen, Antonio Kortazar arkitektoaren zuzendaritzapean. 1870eko udal akta baten deitzen zaio lehenengo aldiz **Gerrikoren kantoia**.

Juan Frantziskoren semeak izan ziren **Kasimiro eta Felix Gerriko Nanclares**: bata herriko alkate liberala hainbat urtez,



Lazarragatarren dorretxea.

bestea San Migel parrokiako erretore, 1860 eta 1870ko hamarraldi gatazkatsuetan. **Martin Urreiztieta** Ormaetxea, berriz, bilbotarra zen, eta Oñatiko udalaren ahalduna Donostian administrazioaren aurrean. Joakin Urreiztieta Egaña, bere semea, Basilia Gerriko Ibarzabalekin ezkondu zen; Basilia Kasimiroren alaba genuen. Urreiztiatarak Madrilera joan ziren, baina gure haurtzaroan urtero etortzen ziren hona udatan, Martínez-Irujotarrak, Don Pedrueneko Larrañagatarak eta beste jauntxo bazuen antzera.

Ez da aipatutakoekin kale hauetako etxe interesgarrien zerrenda agortzen, ez horixe. Baina hurrengo atalean eman beharko diogu jarraipena


TABERNA • JATEAK
 Bidebarrieta 6
 Tel.: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA 

Kale Barria (III)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

BESTE ERAIKIN AZPIMARRAGARRI BATZUK

J oan den hilabeteko zenbakian hasitako eraikuntza interesgarrien zerrendari jarraipena emanez, beste banaka batzuen berri zehatz samarrak emango ditugu gaurkoan, nahiz eta badakigun garrantzitsuak diren hainbat aipatzeko edota behar bezainbat nabarmendu gabe geratuko direla. Hona, bada, ondoren etxe horietako batzuen xehetasunak.

Uraingo dorretxea

Erdi Aroaren amaiera aldera-edo jasotako dorre hau herrirako sarreretako batean aurkitzen zen antzina, zubi baten ondoan. Horregatik, **Zubiaurre** gisa ere ezagutzen da. Duela hamarkada batzuk, Ubao erreka desbideratu zutenean, **zubia**, eraitsi gabe, estali egin zen. Herriko zubirik zaharrena izan daiteke.

Dorretxeak nola edo hala iraun zuen XX. mendera arte. **Damian Lizauro** arkitektoak sakon eraberritu zuen 1954an; jatorrizko hainbat ate eta leiho mantendu zituen behean eta lehen solairuko hormetan, etxe-bizitzak egokituz bigarren estaian. Ateak era eta tamaina desberdinetakoak dauzka, arku gotiko zorrozduak gehienak eta puntu-erdiko eder bat ere bai. Oso politak dira, besteren artean, fatxada nagusian ageri diren leiho bikoiztu lobulatuak.

Eraikin honetan bizi izan zen XVI. gizaldian **Borgoñako Felipe**, unibertsitateko obretara etorria eta Asentzioko ermitako San Andresen erretaula ederra (1555) moldatzen aritutako eskultorea. Etxe honetako alaba batekin zegoen ezkondua.



Zubiaurre, Iturritxo ondoan estalita geratu den zubia.



Urain dorretxeko ate eta leiho gotiko batzuk.

Otadui etxea

Hasierako Kale Barria 1488ko suteak suntsitu ondoren, berregin zutenean, luzapena eman zitzaion goiko alderantz, Kalegoiena deituriko zatiarekin. Eskumatik errebal berri horren lehenengo etxea dugu Otadui deritzana; **XVI. mendean eraikia, harlanduz beheko partea eta adreiluz goiko pisuak**. Elementurik bereizgarrienak kantoira ematen duen **burdinazko balkoi dotorea eta zeramikazko armari bitxia** ditu.

Oñatiko Historia eta Arte Bilduma (1982) izeneko liburuan etxe hau “Casa del Deán de Avila” moduan dator. Baina, dirudienez, hori ez da zuzena, armariaren interpretazio okerretik baitator. Egia esan, **zeramikazko piezak era nahasian jarrita zeuden eta DE ABILA / OTADUI JAUSORO / DEAN DE ABILA** irakurri zen orduan inskripzioa. Baina azken eraberritzea modutu denean, zatiak ordena egokiagoan ipini eta **OTADUI JAUSORO / ARCEDIANO DE ABILA** gisa ulertu da.

Arzedianoak edo artxidiakonoak katedraletako kargu inportante batzuk izan ohi ziren. Esan behar da Otaduitarrak Oñatiko familia garrantzitsu batekoak genituela. **Lorentzo Otadui Abendaño**, gure herriko historian pertsonaia handia, **Avilako apezpiku** izatera iritsi zen XVII.aren lehen hamarkadan. Otadui-Jausoro hori apezpikuaren iloba omen zen.



Otadui etxeko armaria zuzendu aurretik zegoen bezala.

Azkeneko obrak burutzerakoan, zoritxar galanta gertatu zen. Izkinako balkoiko jatorrizko **burdina-hesia** konpontzera eraman zen errementaldegira, eta **lapurrek ohostu** egin zuten bertatik. Orain dagoena kopia da.

Etxaluze

Izena gelditu bada ere, parajea eta plazatxoa bataiatu zituen erai-kina duela hamarkada gutxi eraitsia izan zen, etxebizitza eta dena berriak jasotzeko. Benetan penagarria etxe hori desagertu izana. **Kale Barriaren akaberan**, Kale Goienaren bukaeran nahia-go baduzue, **kokatzen zen jauretze hura** ez zen hain zaharra: 1846. urtean eraikiarazi zuen **Andres Lizaur** jaunak, **Mariano Jose Laskurain** arkitekto famatuaren proiektuarekin. Hiru fatxada zituen kanpoko aldera eta beste bat etxe osteko ortu-lorategi zabalera. Ordezkatu duenaren antzera, baina solairu gutxiagorekin. Aurreko etxeak zeukan **armarria mantendu dute** berriaren ere, Zubillaga Azpiko baserrian dagoenaren kopia. Andres Lizaurreren jatorria sortetxe horretatik ei zetorren.

Andres Lizaur gizon bitxia izan zen. Bazuen diru-iturririk, Ameriketara lortutakoak nonbait, hainbeste lur-sail erosi eta obra ordaintzeko. Izan ere, ez baitzuen bere mesedetan soilik gastatu bere kapitala. Oñatiko udalaren 1856ko akta batean adierazten denez, **herrizale eta filantropo gisa ere agertzen zaigu**: Etxaluze inguruko plazatxoa, Kale Goienatik San Martingo zubirainoko kaletxoa (egungo Martzelino Zelaia) eta beste zenbait tokitako lur-zoruak pabatu, egokitu eta txukundu zituen bere kontura.

Hurrengo belaunaldietan Etxaluzen bizi izandako pertsona asko ere nabarmendu ziren arrazoi ezberdinengatik: **Maria Irizar**, **Enrike Elortza**, **Frantzisko Apaolaza** edota **Bixi Ziaurriz**, esaterako. **Maria Irizarrek oso merke utzi zituen herrirako**, 1960tik aurrera Matingo eta Etxaluzeko eremuetan gauzatu diren poligonoetarako **lur-sailak**. Kale labur bat eskaini zitzaion, baina Apaolazaren alarguna izenarekin. Orain dela gutxi lortu da, hainbaten ekimenari eskerrak, emakume batek benetako izen-deiturekin Oñatin kale bat izatea. Bota aurretiko azken garaian agustino laterandarrek eta herriko ospitaleak ere erabili zuten Etxaluze urte batzuetan.

Eta beste hainbat

Kale Barriaren eta alboko kaleetan etxe-ordezkapen asko egon da, lartxo agian. Dena dela, orain arte aipatutakoez gain, geratzen dira beste banaka batzuk, kanpotik behintzat, osagai interesgarriak mantendu eta gorde dituztenak: adibidez, **Santosena**, **Atxarena**, **Gereta**, **Kirriñena**, **Orbea**, **Ibarrondo**, **Ritarena**, **Egañena**, **Juanitosa**, **Konfitteruena**, **Urrutxuneko atetzarra**, **Iturritxo**, **Honbrena**, **Agerrena**, eta abar. Hurrengoan saiatuko gara horietako batzuetan oraindik begi bistan ditugun armarriak, irudiak, atekak, leihoak, miradoreak, behebarruak, modilloiak eta beste elementu ezohiko batzuk ikusarazten.



Etxaluze zaharra bota baino urte batzuk lehenago.

ZURRUST
 TABERNA • JATETXEA
 Bidebarrieta 6
 Tel: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



Kale Barria (IV)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

KALE BARRI ALDEKO IZENDEGIA

Kale Zaharrean jazotakoaren antzera, Kale Barria eta inguruetakoa **kale-izenetan makina bat aldaketa** izan zen Oñatiko historian zehar. Erdi Aroan hasi eta gaur egunera arte, baina, egia esan, azkenengo 125 urteetan gertatu dira ugariak. Azpimarragarrienak azaltzen saiatuko gatzakizue.

Kale Barria

Orain horrela deitzen den kalearen lehen zatia aspaldikoa dugu. Erdi Aroaren amaieran, luze samarra zen jadanik, **Rua Nueva** (1489) legez agertzen zaigu dokumentuetan; baina XVI. gizalditik aurrera **Callebarria** moduan ere maiz irakur daiteke agirietan. Garai hartan, gorago adierazi genuenez, egungo Patruetakale-Naparrenako kantoi ondoraino iristen zen, eta Atzeko kalea Iturritxon dagoen Zubiaurre izeneko zubiraino (orain estalia).

Kale Barriak bi **luzapen** inportante eduki zituen, 1488ko erreketak izugarriaren ondoren: lehenik, egungo Etxaluzeraino hedatzen zena, **Callegoyena** gisa ezagutua XIX.era arte; eta geroago, azkenengo honen jarraian, **Auzotxo** zeritzana Murgizubietaraino, San Martinerako bidean.

Kaleen izenei dagokienez, Oñatiko udalak erabaki oso garrantzitsuak hartu zituen 1896-1897 bitarteko bi bilkuretan. Gipuzkoako Diputazioaren eskariari men eginez, antza, **herriko hainbat kale birbataiatu** zituen, zenbait pertsonaien izenekin ordezkatzuz. Hartara, Kale Barria hamarkada askotan **Rodrigo Mercado Zuazola** bihurtu zitzaigun, plazatik Murgizubietaraino, Kalegoiena eta Auzotxo ere bereganatuz. Trantsizioko lehen udal hauteskunde demokratikoaren ondoren **berreskuratu zuen ofizialki Kale Barria izena** (1979), Eli Galdosen lehenengo alkate-aldian.

Atzeko Kalea

Erdi Aroan gauzatuko zen hau ere, Kale Barriaren osteko aldean, era paraleloan. Jatorrizko izena hortik datorkio, jakina: XVI.ean erdaraz **Trasera de la Rua Nueva** izendatzen da, hots, kale nagusiaren atzeko aldea; geroago, ordea, **Santa Maria** legez ageri da 1897ra arte; orduko kanbioetan **General Azcárraga** izen berria ezarri zioten, baina ez luzarorako, 1900ean **Garay** plakarekin hasi baitzuen XX. gizaldia. Bestalde, ordukoexa dugu Itu-



M. A. Arzuagaren grabatua

Eskolatzonoko ingurua Atzeko kalean (1953). rritxotik Portalekurainoko tarteari ipinitakoa ere: **Arantzazuko Amaren kalea**, alegia.

Gerra zibilak (1936-1939) ondorio latzak eta ugari ekarri zizkigun: baita kale-izendegian ere. Adibidez, Atzeko kale **Zumalacárregui** bilakatu zen gerra denboran bertan, Francoren alde borrokatu zuten erreketean eraginez nonbait; guk horrela ezagutu genuen urte askoan. **Atzeko kalea ez zen izen ofizialtzat onartu 1990.era arte**. Beste aldaketa batzuk ere gertatu ziren gerra ostean, 1960 inguruan, Reyes Korkostegi alkate zela. Aztertzen dihardugun eremu honetan bi izendapen berri jarri ziren: bata **Marcelino Celaya**, Auzotxoko zatiari zegokion Zuazola kalearen lekuan; eta bestea **Ramon Irizar**, Atzeko kaletik oraingo Zubi Barrirako tartean, Makaleneko inguru horretan.

Dena den, **leku-izenen iraupenari buruzko xehetasun bitxiak** daudela esango genuke. Kasu batzuetan, aldi luzean oso ezaguna eta erabiliak izan arren, ahaztu egiten dira erabat, ia aztarnarik laga gabe: **Kalegoiena**, esaterako, azkenaldi honetan nolabait berreskuratu den arte. Beste batzuetan, ostera, nahiz eta urteetan zehar behin eta berriz birbataiatuak izan diren, herri xeheak jatorrizko izenari eutsi dio: adibiderik garbiena **Atzeko kalea** dugu, arestian frogatu denez.

Kale-izenen zergatiak

Arrazoi desberdinak egon daitezke kaleak izendatzeko orduan, eta aldatuz joan dira denbora, ohitura eta joeren arabera. Sasoi batean **tokiari ematen zitzaion garrantzia**, kaleari berari: horrela sortu ziren kale nagusi eta txikiak; zaharrak eta berriak; goienekoak, artekoak eta barrenekoak; aurrekoak eta atzekoak, eta abar.

Gerora, beste zergati batzuk nagusitu ziren: **pertsonaia ospetsuak edo gertakari historikoak hautatzen ziren**, batez ere, zeregin hori betetzeko. Pertsonaien artean handikiek zeukaten aukera gehien: errege-erreginek; noble eta militarrek; politikoa eta enpresariak; santu eta santak; apezpiku eta elizgizonek, mojek gutxiago; ongile eta filantropoek; artista, idazle eta zientzialariek, eta era horretako beste hainbatek. Hain famatuak izan gabe, **gremioetako artisau eta langileei** ere eskaintzen zitzaizkien inoiz kale-izenak: zapatari, zurgin, errementari, sokagile edota dendariei; hori bai, taldean, euren pertsona-izenik aipatzeke.

Gertakari historikoen artetik **gerrak eta gerrateetako pasadizo loriosak eta balentriak** izaten ziren estimatuenak, tamalez.

Bakegintza edo kultura sustatzeko ekintzak askoz urriago. Arlo honetan, Oñatin apur bat denetik izan dugu eta daukagu. Gaurkoan eta hurrengo lanetan horietako lagin batzuk nabarmenduz joango gara.

- Lekuarekin lotutako adibiderik garbienak **Kale Barria**, **Kalegoiena** eta **Atzeko kalea** dira, zalantzarik gabe. Aurreko lerrotan adierazitakoa kontuan izanik, ez dago, gure ustez, aparteko azalpen beharrik.

- **R. M. Zuazola**, **R. Irizar**, **M. Zelaia**, **M. Azkarraga** eta **K. Garai** ditugu pertsonaiak. Lehen hirurak oñatiarrak ziren, laugarrena filipinarra eta bosgarrena aretxabaletarra.

- **Rodrigo Mercado Zuazola** da ospetsuena. Gure artean, batik bat, hemen XVI. gizaldian eginarazi eta ordaindu zituen eraikuntza eder eta bikainengatik: klaustro gotikoa eta kapera platereskoa parrokiaren, eta unibertsitatearen eraikina eta fundazioa. **Badirudi Kale Barrian jaioa zela**, 1489ko sutea baino urte batzuk lehenago; bere ama, **Elvira Zuazola**, **Rua nueva-ko biztanle moduan** dator hurrengo urteko errolda moduko hartan. Tradizioak dioenez, lehen Txarriduna tabernak eta orain San Migel kooperatibak okupatutako orubean omen zegoen jaio-tetxea. Horregatik ditu, nonbait, aurreko eta atzeko fatxadetan Zuazola apezpikuaren armariaren kopiak.

- **Ramon Irizar** eta **Marzelino Zelaia** XX. gizaldiaren hasierako bi kontzejal genituen Oñatiko udalean. Baserritarrak ziren biak: Martxel Zañartuko Upaingoa eta Ramon Zubillagako

Martezkoa. Kontzejuan jardundako urteetan **herri-lurretako basoak zaintzen eta zuhaitz berriak landatzen** burututako lanengatik eskertu nahi izan zizkien bie. Hartarako, 1960 inguruan, Reyes Korkostegi alkatearen garaian, bi zinegotzi hauei eta Roke Azkune basozainari kale bana eskaintzea erabaki zuen udalak.

- **Marcelo Azcárraga** euskal jatorriko militar eta politikoa Manilan jaio zen. Aita bizkaitarra zuen, jenerala, eta ama filipinarra. Karrera militar luzea egin zuen Ameriketako kolonietan nahiz penintsulan, jeneral izatera iritsiz; politikan ere aritu zitzaigun XIX. mendeko bigarren erdian: ministroa izan zen eta, A. Cánovas 1897an Santa Agedan hil zutenean, **hilabete batzuetan gobernuburu kargua bereganatu zuen**. Orduantxe jarri zioten bere izena Oñatiko Atzeko kaleari, baina hiru urte soilik iraun zuen izendapen horrek.

- **Kornelio Garai**, Bedoñako semea (orduan Aretxabaletakoa zen auzo hau), eta Oñatiko industria modernoaren aitzindaria: Goribar auzoko **Garay** pospolo-fabrika sortu zuen XIX.ean. Bere familiakoek, itxialdi luzetxo baten ondoren, beste produktu batzuekin eman diote jarraipena lantegiari, gaur egunera arte. Kornelio Garai Zuazubizkar diputatu ere izanik, Gipuzkoa osoan ezagutzen zuten, 57 urterekin 1900ean hil zenean. Oñatiko udalak orduantxe erabaki zuen Atzeko kaleari (une hartan Azcárraga), **Garay** izena ematea, baina ez luzarorako, 1937an, gerra denboran, Zumalakarregi jeneral karlista historikoari dedikatu baitzioten



Artzelusena, Honbrena eta Txarraskuena Kalegoienan.



Auzotxo 1960ko hamarkadaren hasieran.

ZURRUST
 TABERNA • JATETXEA
 Bidebarrieta 6
 Tel.: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



Kale Barria (V)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

KALE BARRIA ALDEKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ABAR

Oñatiko denda-kalerik garrantzitsuenak Kale Barria, Atzeko kalea eta inguruak izan dira historian zehar, Kale Zaharrarekin batera garai batzuetan. Oraindik ere horretan dirau goialdeko alderdi horrek, merkataritzari dago-kionean behintzat. Ostalaritza kontuetan, ordea, **dezente aldatu da azken hamarkadetan**, beheko auzoen mesedetan, taberna-arloan batez ere. Guztion inbentario zehatza egitea ezinezkoa da honelako lan batean eta gainditu egiten ditu jarrita dauzkagun mugak

Beraz, XX. eta XXI. mendetara mugatuko gara, gutxi gorabeherako sailkapena eginaz. Hauetariko denda eta negozio asko, jakina, itxi edota eskuz aldatu egin dira hainbeste denboran. **Plazatik gorantz moldatutako zerrendak dira, eta lokalen kokapena zehazten saiatu gara**, gaur eguneko numerazioa erabiliz. Kale-izenak honela laburtu ditugu: Kale Barria [KB]; Atzeko kalea [AK]; Ramon Irizar [RI]; Arantzazuko Ama [AM]; eta Martzelino Zelaia [MZ] Hutsuneak betetzen eta akatsak zuzentzen lagunduko diguzuelakoan, hara gure proposamena eta hurreraketa:

JANARIAK

a) **Fruta-dendak:** Sustrai [KB 1] / Ximona Arrizabalaga eta Maritxu Letamendi [KB 5] / San Migel kooperatiba [KB 8] / Goñirena [KB 17] / Rosa Alonso eta Juan Eiro [KB 28, AK aldetik] / Txantxiku [KB 30].

b) **Denetarik:** Lukasena [KB 2] / San Migel Kooperatiba [KB 8] / Oleaga [KB 14] / Milikua [KB 18].

c) **Okindegiak:** Lanberto Isasa; Migel Irizar eta ondorengoak [AK 14] / Aristegi-Ugartetarrak (*Eskolatxo*) [AK 16] / Egañena [KB 35].

d) **Gozoki-dendak eta pasteleriak:** Kiku [KB 7] / Txokolatexia [KB 16 lehen, KB 29 orain] / Arrazolatarrak (*Konfitteruena*) [KB 41] / (Muruamendaraz [KB 45] / Garcia; Reizabal [KB 44].

e) **Harategiak:** Patri eta Rodrigo Mugartza [KB 2] / *Sukiatarrak*, Txarriduna [KB 8] / Carlos eta Reyes Urtaza aita-semeak, (*Kirriñena*) [KB 14] / *Bellotzatarrak*, Sebastian Lizarralde, aita; eta seme-alabak: Migel, Jaxinto, Anita eta Tomas Lizarralde lokal desberdinetan [AK, KB eta AM] / Joxe Plazaola [KB 30] / Odriozola [AM 2] / Bixain [AM].

f) **Pentsuak eta abar:** *Bellotza*, Ugarte-Lizarralde [KB 2] / Eloy Roa [KB 24] / Baldomero Díaz de Monasterioguren [KB 49].



Juanitoseneko denda eta inguruak XX. mendearen 2. hamarkadan. Maribi Arregik utzitako argazkia.

Neurdein et Cie. - Paris.

TABERNAK ETA JATETXEAK

a) **Sagardotegia:** XX. mendearen hasieran [KB 3].

b) **Bodegak:** *Geretatarrak*, Edmundo, Manuel eta ondorengoak [KB 11] / Felix Elvira [KB 17] / Hilarion Umerez eta ondorengoak [MZ 2].

c) **Tabernak:** Arrano [KB 13] / *Sukiatarrak*, Txarriduna [KB 8] / Etxeberria [KB 15] / Goñi [KB 17] / Guria [KB/ Aloña Mendi / Goiko Txurruka; El Caserío; Altxaga; Galicia [AK 22] / Gure leku; Boga [AK 26] / Iturritxo [AK 32] / Ausejo [AM / Vitoria [AM / Naparrena [KB 28 / Aitzgorri (*Torrena*) [KB 36]; Aketegi; Boise [KB 47/ Umerez [KB 47] / Andutz; Goiena [KB 46] / Cenicero; Urubil] [KB 52] / Otamendi [MZ 1].

d) **Jatetxeak:** Amaia [KB 9] / Txarriduna [KB 8] / Etxeberria, bi lekutan [KB 14 hasieran, KB 15 geroago] / Aloña Mendi [AK 18] / GoikoTxurruka eta ondorengoak: (El Caserío, Altxaga eta Galicia) [AK 22] / Iturritxo / Aitzgorri (*Torrena*) / Andutz; Goiena [KB 46] / Cenicero eta Urubil [KB 52].

JANTZIAK

a) **Arropa-dendak:** Etxeberria (*Santosena*) [KB / Marku, [KB 6 lehen, KB 28 orain] / Ni moda [RI 2 lehen, KB 12 orain] /

Klau [AK 6] / Candeluka [RI 2] / Baio [AK z/g] / Zubiagirre (*Pullangua*) [KB 20] / Rita Enparantza; Ene Bada [KB 22A] / Balma [KB 55] / Lantzen [KB 57] / Urrutia (emakumeak eta gizakumeak) [KB 54] / Chic [KB 54].

b) **Jostunak:** Teofilo Letamendi [KB 5] / Juan Arrue [KB 7] / Eugenio eta Angel Aranguren [KB 16] / Manuel Quelle; Juan Quelle [AK 13] / Demetrio Iriarte [AK 26].

OINETAKOAK

a) **Zapatariak:** Esteban Oñate [KB 3] / Rodrigo Astigarra-ga [KB 7] / Nikolas Ibarrondo [KB 22] / Kaio eta Jabier Urze-lai; Patxi (*Kantoi*) [KB 30].

b) **Zapata-dendak:** Klau [AK 6] / Gabino Olalde eta ondorengoak, (*Sillero*) [KB 47 lehen, KB 38 orain] / Aldasoro; Ira-mira [KB 44].

c) **Espartinak (alpargatak):** Karlos Agirrebengoa [KB 21] / Gabino Olalde eta ondorengoak (*Sillero*) [KB 47 lehen, KB 38 orain].

ILE-APAINDEGIAK

a) **Emakumeenak:** Ana Mari eta Tere Letamendi [KB 2] / Mari Jose Jauregialtzo [AK 2] / Juli Arregi (*Makalena*) [RI 23] / Valeska Mager [RI 23] / Izaskun Aldanondo (*Sesiñena*) [AK 10] / Isabel Arabaolaza [AK 13] / Sabina Igartua [KB 51].

b) **Gizakumeenak:** Karlos eta Joxe Agirrebengoa [KB 21] / Aldanondo (*Sesiñena*) [AK z/g] / Tiburtzio Mendizabal [KB 39] / Fr. Txintxurreta (*Goixenetxe*) [KB 28, AK aldetik] / Juan Uri-betxeberria (Zelaa) [KB 45] / Julian Olalde (*Sillero*) [KB 47].

ITURKINAK

Azpiazutarrak, aita- semeak [KB 19] / Sebastian Etxeberria (*Korrio*) [KB 44].

ERLOJU- ETA BITXI-DENDAK

Zubiaga [KB 18] / Gómez [KB 32] / Aranburu [KB 55].

ARGAZKI DENDAK

Jose Luis Plazaola eta semea [KB 31 lehen, KB 21 orain] / Jon Arzuaga eta [KB 28] / Jon Ander Arzuaga [AK 5] / Migel Anjel eta Jesus Mari Arzuaga [KB 50].

Txarriduna taberna eta jatetxea itxi zuten urtean.
Dorita Sukiak utzitako argazkia.

OPTIKAK

Plazaola [KB 29] / Itziar [KB 32].

BANKUAK ETA AURREZKI-KUTXAK

a) **Bankuak:** Banco San Sebastián / Banco Santander [KB 1] / Banco Vizcaya [KB 24].

b) **Aurrezki Kutxak:** Caja Laboral [KB 3] / Gipuzkoako Aurrezki Kutxa [KB 21; Kutxa-Kutxabank [KB 2].

BIDAIA-AGENTZIAK

Eroski [KB 24] / Halcon [KB 41] / Zafiro Tours [KB 51].

Ez dugu gaurkoan tokirik beste hainbat denda eta zerbitzu aipatzeko: farmaziak, belar-dendak, lantzeria-mertzzeria, kirol-dendak, drogeriak, paper- eta liburu-dendak, opariak eta jos-tailuak, estankoak, elkarteak, sindikatuak, tailerrak, lantegiak eta abar luzea. Hurrengo batean beharko du.



J.L. Plazaola, 1972



||||| OÑATI KALERIK KALE

Kale Barria (VI)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Joan den hilabeteko atalean esaten genuenez, Oñatiko Kale Barria eta inguruetakoko industria txiki, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuei eskainitako lantegi, denda, jatetxe-taberna eta bulegoak **ugariak eta askotarikoak** izan dira historian zehar. Azken 120 urteetakora mugatu garen arren, gure azaleko inbentario apal honetan **zenbait hutsune eta akats** daudela badakigu. Gaurkoan horietako batzuk estaltzen saiatuko gara, ahal den neurrian, beste era bateko lan zabalago eta zehatzagoan aztertu eta azaldu beharko direla konturatuta, noski.

Dena den, udalak sortu berri duen Selma Huxley bekari esker, arlo honetan emakumeek gure herrian burututako lanei buruz **Jone Arrazola eta Irati Garai antropologo oñatiar gazteek** prestatzen diharduten ikerketak **ikuspegi osatua eta sakona** eskuratuko digulakoan gaude. Hona, ba, besterik gabe, aurrekoan **hasitako zerrendaren behin behineko jarraipentxo**a. Orain hurrengoan bezala, plazatik gorako ibilbidea egingo dugu, orduko laburdurak erabiliz (KB / AK, etab.) kaleen izendapenei dagokienean.

BAZARRAK

Juanitosa [KB 24-AK 11] / Txinatarra [KB 52].

LURRINDEGIAK / DROGERIAK

Garmendia [KB 1] / Galartza ahizpak [KB 6] / Goiara [KB 21] / Aranburu [KB 47].

ESTETIKA

Gutziz eder [KB 29].

MERTZERIAK / LENTZERIAK

Urtaza, izebak eta ilobak [KB 14] / Begoña [AK 6] / Urzelai [KB 26] / Aizkirri, (Odriozola ahizpak) [AK 28] / Arregi [KB 57] / Ane [KB 54].

ALTZARIAK

Idigoras [KB 9] / Arregi [KB 57].

ELEKTRIZISTAK ETA ELEKTRAGAILUAK

Txintxurreta [KB 5]; Txantxiku [KB 20] / Astigarraga-Korkostegi [KB 37] / Ormazabal-Arregi; gero Felix Arregi eta semea [KB 53].

MARGOAK

Gezalaga [KB 31] / Aranburu [KB 47].



Rodrigo Mercado Zuazola gotzaina.
Antonio Valverde *Ayalde*-ren margolana

MARKOGINTZA

Hegoia [RI 2].

BARNE DISEINUA

Kaio [KB 18].

BIZIKLETAK

Urresti anaiak, Baketxe kalean / Mendizabal [KB 39].

KIROL-DENDAK

Agirre [KB 17] / Mendizabal [KB 39 eta AK 28].

EHIZA ETA ARRANTZA

Fr. Txintxurreta eta semea, Goixenetxe [KB 28, AK aldetik] / Gregorio Guridi Torre [KB 36]

LORA-DENDAK

Kimu [KB 17].

BELAR-DENDAK

Ekhi-Eder [RI 2] / Goiztiri [RI 2]

BURDINDEGIAK

Elorza [KB 17].

ESTANKOAK

Altuna [KB 19].

PAPER- ETA LIBURU-DENDAK

Irizar [KB 4] / Altuna [KB 19] / Trikitx [KB 44].

OPARIAK ETA JOSTAILUAK

Lukasena [KB 2] / Juanitosa [KB 24-AK 11] / Trikitx [KB 44].

FARMAZIAK

Fermin Yurrita; Miren Galartza; Lorea Juldain [KB 6] / Migel Garate eta ondorengoak [KB 42].

MEDIKUAK

Iñaki Garbizu [KB 18] / Jose Maria eta Bizente Arzelus [KB 48] / Frantzisko Apaolaza [KB 54].

DENTISTAK

Jose Maria Zubia [AK 8] / Esther Arabaolaza [AM 2] / M^a Angeles Mendizabal [AM 2C].

ABOKATUAK

Antonio Mokoroa [AK 4] / Jose Migel eta Beatriz Gomendio [KB 59].

GESTORIAK

Cortabarria [KB 42]

LANTEGIAK

- Banastaginak: Makaleneko maiorista eta tailerreko langileak [RI 3] / Esteban Arriaran, *Txarrasko* [KB 44] / Auzotxo kalean Hilarion Umerez maiorista eta hainbat banastagin etxe desberdinetan.
- Arotzak: Bizente Korkostegi eta semeak [AK 10] / Iñazio Zelaia eta semeak [AK 13].
- Burdina-tailerrak: Simon Arrue eta ondorengoak [AM 2] / Nikolas Etxabe [KB 32] / Domingo Galdos [KB 42].
- Txokolate-fabrikak: Martin Orbea [KB 29] / Zahor [KB 35].
- Eraikuntza: Italde [RI 2].

ELKARTEAK

- Gastronomía elkarteak: Arrano [KB 13] / Zubialde [RI 1] / Makalena [RI 3] / Nekazarien elkarteak [AK 10] / Oinarri [KB 35] / Irrintzi [KB 24] / Etxaluze [KB 54] / Kurtze Baltz [MZ 3].
- Kirol elkarteak: Aloña Mendi [AK 20] / Antxintxiketan [AK 32].

• Kultura elkarteak: Oñatz gazte-elkartea [KB 35] / Ganbara [KB 54]

• Alderdi politikoak: EAJ (Batzokia) [KB 9] / EH-Bildu [KB 9] / HB [KB 13].

• Sindikatuak: ELA [AK 13] / LAB [AK 32].

ERA ASKOTAKO PERTSONAIK

Kale arte hauetako etxe eta eraikuntzetan jaiotako, bizi edo jardundako pertsonaiei gagozkiela, berriz, are zailagoa egiten zaigu, leku eta asti faltaz, ganorazko argibideak gauzatzea. Beraz, ezinbestean, aipamen labur eta ondo osatu gabeak eman beharko dizkizuegu oraingoz. Baten batzuk aipatu ditugu, jada, aurreko ataletan.

Elizgizonak

Rodrigo Mercado Zuazola eta Lorentzo Otadui Abendaño, Avilako gotzainak bata zein bestea; Azisklo Xabier Agirre, Migel Mariano Plaza, Felix Gerriko eta Ladislao Sagastizabal, San Migel parrokiako erretoreak; Jose Maria Agirrebaltzategi, sermolari ospetsua eta protokoloetako artxibozain.

Musikariak

Txistularien artean nabarmentzen dira, Demetrio Iriarte aita eta honen bi seme, Demetrio eta Higinio; baita Agustin Zarketa ere. Joxe Azpiazu ospe handiko gitarista bilakatu zen Europa osoan; halaber bere alaba Lupe. Martin Iñurretegi, *Martiñola*, berriz, dultzaina-jole ezaguna izan zen urte askoan.

Alkate, politikari eta beste

Azken mendeetan alkate ospetsuak izan ziren Kasimiro Gerriko, Esteban Gomendio, Santos Etxeberria, Reyes Korkostegi edota Joxe Mari Leturia. Era berean, politika-munduan azpimarratzekoak dira arrazoi eta alderdi desberdinetatik, Jose Leon eta Daniel Mugartza, aitona-bilobak; Jose Migel Gomendio eta Anjel Iturmendi, besteak beste.

Kirolariak

Joxe Mari Arralde, Kornelio Oleaga eta Manolo Arregi pelotari onak izan ziren eskuz, eta Isasa anaiak puntista gisa; Pio Ituarte txirrindulari ez ezik, lasterkari eta boxeolari ere izan genuen; Juanito Ibarondo eta Antonio Leturia eskiatzaile trebeak genituen eta Reyes Korkostegi espeleologo oñatiarren aitzindari...

Eta gainera...

Aipagarriak dira, jakina, Naparreneko Margarita eta Rosendo Iturmendi; *Memorias de aquel Oñati* liburua utzi zigun Juanito Zubia; Inazio Egaña eta Karlos Moia enpresa-gizonak; Anjel Iriarte, *Panpott*, txistulari eta barberoa; edota Etxaluzeko Maria Irizar, Oñatin kale-izena daukan emakume bakarra, eta abar, eta abar.

